

ADIERAZPEN INSTITUCIONALA

Leioako Udalak gure udalerrian agertu Leioako Udalak gure herrian agertu den eta ETA talde terrorista goratzen duen pintada gaitzesten du. Horrelako adierazpenek biktimen duintasuna urratzen dute, bizikidetzari kalte egiten diote eta gure gizarteak esfortzuz eta erabakitasunez eraiki dituen balio demokratikoen kontra egiten dute.

Ez da gertaera isolatua. Azken boladan, indarkeria helburu politikoekin justifikatzearen gorakada kezagarri baten aurrean gaude, eta beharrezkoa da, gaur egun inoiz baino gehiago, edozein motatako extremismoei askatasun eta demokrazia gehiagorekin erantzutea.

Gure bizilagunen ongizatearekin konprometitutako erakunde gisa, errespetuan, memorian eta giza eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren aldeko apustua berresten dugu. Ez dago lekurik indarkeria mota bat bera ere justifikatzeko, ezta hura normalizatu nahi duten mezuetarako ere.

Udal-eremutik lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi dugu, sentsibiltate guztiak elkarrekin bakean biziko diren etorkizun baten alde, elkarrekiko aitorzaz eta inork hurkoaren sufrimendua zalantzan jarri gabe.

Leioako Udalak errespetuzko eta adiskidetasunezko kultura sustatzen jarraituko du, gizarte kohesionatu bat eraikitzeak indarkeria goratzeko edozein modu aho batez baztertzea eskatzen duela sinetsita.



Elkarrekin
Podemos Leioa



PP Vasco

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Ayuntamiento de Leioa condena la pintada aparecida en nuestro municipio enalteciendo a la banda terrorista ETA. Este tipo de expresiones vulneran la dignidad de las víctimas, dañan la convivencia y contradicen los valores democráticos que nuestra sociedad ha construido con esfuerzo y determinación.

No se trata de un hecho aislado. En los últimos tiempos, estamos asistiendo a una preocupante escalada de la justificación de la violencia con fines políticos y es necesario, hoy más que nunca, responder al extremismo de cualquier índole con más libertad y más democracia.

Como institución comprometida con el bienestar de nuestros vecinos y vecinas, reafirmamos nuestra apuesta por una convivencia basada en el respeto, la memoria y los derechos humanos. No hay espacio para la justificación de ninguna forma de violencia ni para mensajes que pretendan normalizarla.

Reiteramos nuestro compromiso de seguir trabajando, desde el ámbito municipal, por un futuro en el que todas las sensibilidades convivan en paz, con reconocimiento mutuo y sin que nadie vea cuestionado su sufrimiento.

El Ayuntamiento de Leioa seguirá promoviendo una cultura de respeto y concordia, con el convencimiento de que la construcción de una sociedad cohesionada exige rechazar, sin fisuras, cualquier forma de enaltecimiento de la violencia.